

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3209

AGINDUA, 2019ko ekainaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean farmazia-bulego bat sortzeko prozedurari hasiera eman zaiola iragartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 34.1 artikuluan ezartzen denez, farmazia-bulego berriak irekitzeko deialdia edo, hala bada, deialdi hori bidezko ez dela aditzera ematen duen iragarpena urte bakoitzeko lehen seihilekoan egingo da, biztanleen udal-errola berrikustetik ateratako datuak izan ondoren.

Horrela, Osasuneko sailburuaren 2018ko maiatzaren 22ko Aginduaren bidez, Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean, 2018. urterako, farmazia-bulego berri bat jartzea bidezkoa zela iragarri zen. Halere, une horretan ezin izan zen zehaztu botika berria non jarriko zen; izan ere, eremu horiek zehazteko, 2018ko urtarrilaren 11ko Aginduaren bidez iragarritako beste prozedura bat burutu behar zen. Horrela, bada, prozedura hori amaitu ostean eta farmazia koka daitekeen osasun-eremuak zeintzuk diren jakinda, bidezkoa da farmazia hori sortzeko prozedurari hasiera ematea.

Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Deialdia egiten da Vitoria-Gasteizko farmazia-eskualdean beste farmazia-bulego bat sortzeko, farmazia-bulegoak sortzea, lekuz aldatzea, ixtea eta jardunean jartzea arautzen duen ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuan xedatutakoarekin bat (otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori).

2.– 11/1994 Legearen 13. artikuluan xedatutako irizpideekin eta 2018ko biztanleriaren datuekin bat, deialdiko farmazia-bulegoa honako hiru osasun-barruti hauetakoren batean kokatu beharko da:

1.1.02 – Aranbizkarra II.

1.1.09 – Lakua-Arriaga.

1.1.12 – Ariznabarra-Ajuria-San Martin.

3.– Farmazia-bulegoaren titulartasuna lortzeko eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera, hilabetekoa izango da.

4.– Aipatuta eskabideak ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitako agiriak erantsita aurkeztu beharko dira, 24/2004 Dekretuak emandako idazkeran.

5.– Eskabideak eta erantsitako agiriak bitarteko elektronikoen bidez edo modu presentzialean aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak aurkeztu eta izapidetzeko, Osasun Sailak web-helbide hauek prestatu ditu:

ES: <http://www.euskadi.eus/2019/concurso-farmacias-vitoria-gasteiz/web01-a2farma/es/>

EU: <http://www.euskadi.eus/2019/farmazia-lehiaketa-vitoria-gasteiz/web01-a2farma/eu/>

2019ko ekainaren 28a, ostirala

Eskabideak modu presentzialean aurkezteko lekuak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoez gain) hauek izango dira:

– Osasun Saila.

Donostia-San Sebastián kalea, 1.

01010 Vitoria-Gasteiz.

– Arabako Lurralde Ordezkaritza.

Olagibel kalea, 38.

01004 Vitoria-Gasteiz.

– Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

Antso Jakitunaren kalea, 35.

20010 Donostia.

– Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.

Errekalde zumarkalea, 39.

48008 Bilbao.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 14a.

Osasuneko sailburua,
MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHEVARRIA.